

FRAI BARTOLOME: 200 URTE IDAZLE
Pertsonalitate handia garai berezian...

Euskal idazle handi baten oroitza ospatzean lan bereziak egi-
ten dira: hemen duzu Frai Bartolome Santa Teresa, idazle eta
hizlari handi baten aurkezpen serioa. Karmel aldizkariaren esti-
lotik zertxobait urrundu egin gara, eta lan sakonagoak, luzeago-
ak eta maila goragokoak ematen ditugu zerbaki berezi honetan.

Arrazoiak: une honetan Frai Bartolomeren idazlan guztien
edizio kritikoa argitaratze lanetan bete-betean sarturik gaude.
Ekintza handi hau beste oroitzapenarekin lotuta dago: orain
dela 200 urte hasi zen Frai Bartolome idazten eta predikatzen
(1799-1800)... Eta gaur euskal idazle klasikotzat dugu...

Hura nor den galdetzen diogu geure buruari. Hemen, batez
ere, haren nortasunaren bi alde adierazgarri agertzen zaizkigu:
Frai Bartolome *sermolari edo hizlari* eta *euskal idazle* da bere-
ziki.

Ikerketa historikoan zehar, Frai Bartolomeren bizitza eta
ekintzaren berri jakin ahal izan dugu, eta haren nortasun histo-
riko eta linguistikoaren garrantziaz jabetuko gara.

Pertsonalitate handia garai berezian...

Izan ere, haren bizitza bere garaiko egoera sozio-politikoan
kokatu beharra dago: Egoera guztiz zailetan bizi izatea egokitu

zitzaion: lehenengo eta behin, Napoleonen gerrak berta-bertatik bizi izan zituen; hauetan, komentutik alde egin beharra izan zuen eta bere jaioterrian, Etxebarrin, konfinatu zuten.

Urte batzuk geroago, Isla-ko basamortuko (Sestao) nagusi izendatzen dute (1820-1824); konstituzio garaiko hiru urteak ziren; hauetan Isla-ko komunitate-bizitza onez gordetzeko lan eskerga egingo zuen... agintari zibil eta elizakoekin harremanetan jarritz.

Urte hauetan Gobernuak bere eduki ideologikoari ematen dio garrantzi berezia: honek, Konstituzioa zein beharrezko eta zein ona den sartu nahi zion gizarteari buruan: elizetako erretoeak, igande eta jaiegunetako homiliari Konstituzioaren artikulatu bat eranstera behartzeko erabakia hartu zuen. Gorteak eliz erreformak egiten hasi ziren, horrela erlijio eta eliz erakundeen desegitea lorturik...

Egun haietan konstituzioko gobernuaren aurka altxamendua egiteko saioak izan ziren, eta Frai Bartolomek parte-hartze esanguratsua izan zuen bakeari eta konstituzioko ordenari eusteko. Hor bake-egile agertzen zaigu... Justizia eta bakea... nahi zituen...

Eta urteak geroago Espainiako Gobernuak agindutako erlijiosoen kanporatze nagusia baino pixka bat lehenago hilko da...

Erljioaren aurkako giro politikoa gogortu ahala, Elizbarrutiak herriaren euskarazko kristau-heziera sendotu nahi zuenean, lan ederra egin zuen Frai Bartolomek kristau-herri euskaldunean... predikari eta idazle gisa.

Hain zuzen ere, haren sermoi eta hitzaldiak, berberak liburutetan argitaratuak, dira oraingo Karmel aldizkariako argitalpen honen xedea, euskaldun askoren gogoko izango den ustea dugarik.